

## TOLOSATZEN DIAGNOSTIKOA PUNTU GEHIGARRIAK

Ondorengo lerroetan EH Bilduko udal taldeak Tolosatzen, etorkizuneko Tolosaren inguruko hausnarketa/ diagnostikoari egiten dizkion ekarpen multzoa dator.

Esan beharra dago, prozesua garatzen hasi aurretik, zein garatzen joan den neurrian, udal talde honek udal batzordeetan behin eta berriz mahai gainean jarri dituela prozesuaren hutsune nabariak.

Prozesua hasi aurretik, esaterako, irekitzen zen foro bakoitzaren erabakitze ahalmenaren inguruan galdetzean, erantzun oso difuso eta ahulak jasotzen genituen; ondorioz, prozesu honen izaera iritzi emaile hutsa dela ondorioztatu dugu. Esanguratsua da erantzun garbirik oraindik ez dugula jaso.

Honen harira, behin baina gehiagotan iritzi kontrajarri eta gatazkak nola kudeatuko diren galdetu dugu; honen inguruko erantzunik ere jaso ez dugularik. Adibidez, foro edo udal plangintza desberdinen arteko proiektuen talkak ( Tolosatzen prozesua eta HAPOaren errebisioa kasu).

Bestalde, udal gobernuak, prozesuaren hasieratik eta honen lizitaziotik, nahi izan duena egin duela salatu dugu. Batzordeetako dokumentazioa azken momentuan bidali du; eta hori gutxi ez eta informazioa modu eskluientean erabili du, honen horizontaltasuna saihesten eta udal gobernuan ez dauden taldeak bigarren maila batean utziz.

Honek guztiak ez du inongo momentutan prozesuarekiko konfiantza sortzea ahalbidetu eta EH Bilduko udal taldea erabat baztertua sentitu da. Hasiera hasieratik, egutegi zurrun eta itxi bat bete nahi izan da, eta udal talde honek denbora gehiago eskatu duen arren inoiz ez zaio eskaini.

Arrazoi guzti hauen ondorioz EH Bilduko udal taldea osatzen dugun kideok, zalantza asko dauzkagu prozesuaren eta baita bere kudeaketaren inguruan ere, izan ere, prozesu honen helburua egun udal gobernuan dagoen taldearen legengintzatik haratago doa denboran.

Hala eta guztiz ere, hona hemen gure ekarpenak:

- **Pertsonak:**

- Belaunaldi desberdinen arteko harremanak sustatzeko ekintza eta azpiegiturak behar dira; pertsonen arteko harremanak kalean bultzatuko dituztenak hain zuzen. Horretarako, espazio publikoaren berreskurapenean egin behar da lan.
- Komunitate anitza da Tolosakoa, beraz, ingurune inklusiboak sortu behar dira; batez ere kolektibo gutxitu edo minorizatuen aldeko diskriminazio positiboa sustatuz.
- Gizarte zerbitzuen beharra azpimarratu behar da eta eskubideetan oinarritzen den gizartean beharrak dituztenei laguntzeko oinarritzko zerbitzuak ziurtatu behar dira. Honen inguruko informazioa herrira zabaldu behar da: Erabiltzaileak eta hartzaileak nortzuk diren, zein zerbitzu eskaintzen den, pobrezia aurka zer lan egiten den... Elkartasunean oinarrituriko gizarte baten beharra azpimarratu behar da, gizarte orekatu baterako ezinbestekoak baitira gizarte zerbitzuak. Pertsonen oinarritzko eskubideak guztion eskubide dira, norbanakoaren jatorria edozein izanda ere. Gainera, pobrezia, segurtasun ezari irtenbide emateko modu onena gizarte zerbitzu eta prestazioak eskaintzen dituen gizarte bat garatzea da. Hauen deuseztapenak pobrezia dakar eta pobrezia, segurtasun falta eta gatazka soziala. Ideia guzti hauen lanketa eta sozializazio kanpaina etengabeak izan behar dute.

- Emakumeentzako espazio propio eta autonomo baten beharra azpimarratzen dugu. Zentzu horretan emakumeen etxeak paper garrantzitsu bat joka dezake, baina honek espazio autonomo izan behar du, hau da, administrazio publikoaren itzaletik at dagoen espazio.
- Piramide demografikoaren azterketan, argi dago, hazkuntza negatiboak hurrengo urteetan eragina izango duela. Populazioaren zahartzeak eta belaunaldi aldaketa bermatuta ez egoteak erroko aldaketa sustatuko ditu arlo guztietan: hirigintzan, gizarte zerbitzuetan, zaintzan, lan merkatuan... hau momentu oro kontuan izatea ezinbestekoa izango delarik; determinantea izango da etorkizuneko lanketan, herri bat bere herritarrek eta hauen egoerek definitzen baitute.
- **Kultura, hezkuntza eta kirola:**
  - Herriko kultur eskaintzak eta sormenak duten indarra ikusita, herriko kultur-guneen / azpiegituren hausnarketa egin beharra dago. Zer talde eta sorkuntza dagoen kontutan izanda, hau kudeatzeko argazki orokorra egin behar dugu, hortik behar diren azpiegiturak identifikatu eta horrela, hauen antolaketaz erabaki adostuak hartzeko aukera izan. Zer nolako azpiegiturak behar ditu Tolosak? Zentralizatuak hala auzoka banatuak? Nola banatu auzoetan dauden lokal eta azpiegitura publikoak? Zein zerbitzu eskaini beharko litzateke horietako bakoitzean? Herriko eskoletako azpiegituren erabilerak hauekin adosteko aukera badago? Edozein azpiegitura berri egin behar dira, edo daudenak berriro aurretik herriko kultur argazki orokorra egitea komeni da?
  - Ferialekuak eta zezen plazak, kultur eskaintza honen baitan, hausnarketa orokorraren ondorio izan behar dute. Hau da, ezin da hauen proiektua modu independentean planteatu.
  - Eskola kirolari dagokionez, konpetitiboa ez den kirol eskaintza sustatu behar da, inklusiboa, belaunaldi artekoa... Gurasoak kontzientziatzeko lana egin behar da, hauek kirolaren baloreak konpetizio hutsean ez direla oinarritzen ikustea ezinbestekoa baita.
  - Kirol taldeak eskola kirolaren filosofia ez konpetitiboan murgildu beharko dira eta udalak hori finantzatzen lagundu beharko luke.
  - Euskarak espazio guztietan nagusi behar du izan, batez ere lan mundu eta espazio informaletan. Ikasketa ez-formalean eragin behar da, Tolosaldea euskararen harnasgune izan dadin.
  - Guraso gazteen eta familien hizkuntza-erabileraren inguruko daturik ez daukagu eta familia abiapuntu dela kontuan izanda, beharrezkoak izango dira hauek, erronka handiena bertan baitago.
  - Hizkuntza paisaiari dagokionean erdara da nagusi eta hori euskalduntzea ezinbestekoa da, kaleak, euskaldun ikus ditzagun.
  - UEMAren azken txostena, non garbi ikus daitekeen euskararen harnasgune diren herriek atzera egin dutela; hauek aztertzea beharrezkoa da. Hirigintzak euskararen baitan duen eragina, HAPOaren errebisioan barnean jaso behar da.
- **Ingurumena lurralde antolaketa:**
  - Herriko lur bankuen (publiko pribatu) azterketa egin behar da, honen bidez herriko eskola eta hirugarren adineko espazioetan elikadura burujabetza indartzeko. Tolosaldeko

elikadura burujabetza sustatzeko plana garatu beharko litzateke, lehen sektoreko produktoreen eta kontsumitzaile potentzialen (eskolak, 3. adineko zentroak...) arteko harremanak garatzeko.

- Eremu berriak ez okupatzearen alde egiten dute herritarrek, beraz, birgaitzean jarri behar da indarra, alde zaharrea batez ere. Hau klabea da, Tolosan zenbait auzune eta baita alde zaharra ere, demografikoki oso heldua baita. Hori horrela, hurrengo urteetan izango duen bilakaera (hustuko diren bizitokiak kasu) kontutan izan beharko genituzke.
  - Bide gorrien seinalizazioa indartu behar da, atzerritarrak hauetan barrena galtzen direla jakina baita.
  - Nekazaritzaren sustapenean lan egin behar dugu, horretarako landa gunek bultzatu eta hauek azokaren bitalidateaz lotuz.
  - Hiltegiaren proiektu bat garatu beharko litzateke, honek eskualdeko produktoreei zerbitzu egokia eskaini eta aldi berean tokiko kontsumoa bertako harategi eta erretegietan indartzeko. Honetarako hiltegia osatzen duten herrien administrazio kontseiluak oinarrizko proiektu bat sustatu beharko luke, eskualdeko abeltzain, harategi eta GFAren laguntzaz.
  - Lurralde garapenak orekatua izan behar du eta horretarako hirigintzak piramide demografikoarekin lotua joan behar du. Bide horretan, etxebizitza hutsak eta hustuko direnak kontutan izan behar ditugu hirigintzaren garapenean.
  - Auzoen degradazio eta zahartzea kontutan izanda, hauetan dirua inbertitu beharko da. Obra txiki lehenetsi behar dira azpiegitura handien aurretik.
  - Energiari dagokionez, Tolargirekin herri askok ez dituzten aukerak ditugu. Zentzu horretan, Katalunyako Ruby herria da adibide edo Crevillent Valentzian.
  - Hondakinetan gaikako bilketa indartu behar da, hau aukera baino egin behar izan dadin. Egungo sistemaren sailkatzea ez da ona, ondorioz, karakterizazio bat egitea ezinbestekoa da. Ideia argia da, etorkizuna gaurdanik egiten da eta gure esku dago, sailkatu.
  - Auzo eta guneen izaera mantentzea garrantzitsua da.
  - Zentzu horretan San Esteban bezalako espazio bat berritzea garrantzitsua da, baina berau ez dugu urbanismo basati batekin lotu behar. Udalak bertako gunek abandonatuak bereganatzen joan beharko luke eta espazio horiek herritarren esku utzi, espazio publikoa irabaziz.
  - Euskara eta genero perspektiba kontutan izan behar dira, hirigintzaren garapenean.
  - Eskualdeko garapena eta bilakaera kontutan hartzea ezinbestekoa da Tolosa eskualdeari erabat lotua dagoelako.
- **Ekonomia:**
    - Tolosaren identitatearen zati garrantzitsua da azoka, beraz, lehen sektorea sustatzea ezinbestekoa da eta nekazari gazteei aukerak eskaintzeko bitartekoak jarri behar dira horrela azoka ere indartuz.

- Bertako produktua sustatzeko kontzientziazio kanpainak garatu behar dira ezinbestean.
- Egungo merkataritza sektorea gaztetzeko, eta modernizatzeko beharra ezinbestekoa da (hala nola on line salmenta, edo merkataria eta negozioen esku aldaketa). Egoera berriei egokitzen laguntzeko diru laguntza larriak aktibatuz.
- Eskualdeko industria sektorea mikro pymeak dira, bide horretan ezinbestekoa da hauen arteko sinergiak garatu eta eskualde mailako garapen estrategiak marrazte eta adostea Tolosaldea Garatzenen bidez.
- Ekintzailatza sustatzeko egokiena espazio sustatzea da, horrela, ekintzailea izango den eskualdea bilakatuz, garapen sostengarria ziurtatuz.
- Gipuzkoa eta EAEko lurralde politika eta politika industrialak orekatu behar dira, hiriburuen metropolizazioari mugak jartzen. Ez da posible, proiektu berritzaileak eta Biherrilaneak laguntzen dituenak eskualdetik joatea. Proiektu estrategikoak dagokien eskualdean sustatu beharko dira; gainontzean, Gipuzkoaren oreka galtzen joango da hiriburu diren Arrasate eta goiherri indartuz eta beste guztiak kaltetuz.
- Garapen ekonomikorako ezinbestekoa da GFAko industria politika eta Eusko Jaurlaritzarenak aldatzeko lan egitea, hauek metropolizazio bati erantzuten diotelako.
- Tolosaldea Saretzen prozesua indartzen jarraitu behar da.
- Enpresa arteko elkar ekintzak garatu behar dira, intra-empresazajeari garatu behar da, hau delako garapen eta sektore industrialak indartzen joateko gune errazena.
- Industria eskualdea gara eta izaten jarraitu behar dugu.
- Turismoak, tokiko produktuarekin (azokarekin), kalitatearekin, naturarekin eta inguruarekin lotua egon behar du.
- Espazio publikoaren parte dira komertzioak, sektore dinamiko izan beharko dutelarik herri bizi bat lortzeko.
- Turismo ereduaren gaineko hausnarketa egin behar da; zer nahi dugun, nolako turismo ereduak nahi dugun jakiteko.
- Garapen ekonomikoak ezin da burutu eskualdeari bizkar ematen.